

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak dendari ekintzaileei guztira 1,1 milioi euroko diru-laguntzak ematea onartu du

Merkataritza ekimenak abian jartzeko gastuen %70 diruz lagunduko dute eta eskatzaile bakoitzari gehienez 15.000 euro emango dizkiote

Lunes, 18 de abril de 2011

Nafarroako Gobernuak dendari ekintzaileei diru-laguntzak ematea onartu du; diru-laguntzak emateko banakako ebaluazioaren erregimena baliatuko du.

Helburua da "Bihurtu dendari" programarako krisiaren kontrako 26 neurria betetzea; izan ere, programako laguntzen deialdia maiatzean jarriko dute abian. Hala, deialdi horretako konpromisoak betetzeko, 2011ko gastuen aurrekontuaren kargura 1.113.000 euro gastatzea onartu dute.

Nafarroako Gobernuak merkataritza ekimenak abian jartzeko gastuen %70 diruz lagunduko du eta eskatzaile bakoitzari gehienez 15.000 euro emango dizkio.

Programako aurrekontuan ehun enpresaburu berri ingururi laguntzeko adina diru dago. Diruz lagunduko dituzte, hain zuzen, txikizkako merkataritza jarduerak irekitzeko eta abian jartzeko gastuak, edo dagoeneko martxan dauden txikizkako merkataritza jarduerari eusteko behar diren gastuak.

Laguntzen helburua da dendari ekintzaileei laguntzea txikizkako merkataritza proiektu berri bat ezartzen edo martxan dagoen txikizkako merkataritza jarduerari eusten; hori, merkataritza enpresen sarea ez deuseztatzeko eta enplegua sortzea sustatzeko.

Laguntza hori Nafarroako ekonomia garatzeko eredu berriaren, hau da, Moderna Planaren, barruan dago. Planaren asmo nagusietako bat da Nafarroako enpresa sektore guztietan eragina duten zeharkako faktoreak sustatzea, besteak beste ekintzailletza.

Txikizkako establezimenduek, laguntzak jasotzeko, Nafarroako udalerriren bateko hiri bilbearen barruan egon behar dute (batik bat etxebizitzak dauden hiri lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian).

Lorezaintzako produktuak, eraikuntzarako edo saneamendurako materialak saltzen dituzten txikizkako merkataritza establezimenduek ez dute baldintza hori bete beharko, ezta mugaz bestaldeko eremuetan kokatutako merkataritza establezimenduetan txikizkako merkataritza jardueretan aritzen direnek ere.

Diru-laguntza deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu bezain laster egongo da indarrean.